

KABLEBARIK SA: KOSTUEN EGITURA

Enpresa guztiak kostuak dituzte, eta haien artean, kostu finkoak eta kostu aldakorrak daude.

KOSTU FINKOAK:

KABLEBARIK SAN ditugun kostu finkoak eguzki panelak, webgunea mantentzea eta alkatatuko dugun lokala dira.

Beste aldetik, webgunea mantentzea ez da doan eta hileroko ordaindu beharko diogu gure webgunea martxan jartzen duen PRESTU enpresari. Denbora ezagatik kontratatutako enpresa da eta gure publizitatea eta beste hainbat gauza kudeatzen dizkigu.

Erabiliko dugun lokalaren alokairua eguzki plakak mugikorretan txertatzeko ordaindu beharko dugu hileroko baita ere.

KOSTU ALDAKORRAK:

Kostu aldakorrak ekoizpen-bolumenaren zuzeneko funtzioa dira, eta ekoizpena hedatzen den bakoitzean handitu egiten da, eta uzkuartzen den bakoitzean murriztu. Haien barruan, eskulana daukagu adibidez zenbat eta langile kopuru handiago geroz eta gastu handiagoa izango dugu.

Beste aldetik, eguzki plakak mugikorretan txertatzeko kola eta beste materialak kostu aldakorretan sartzen dira, produktu hauen salmenta bolumenaren arabera direlako.

Gainera, eguzki panel asko behar ditugu mugikorretan jartzeko eta hainbat erosi beharko ditugu, baina ez dugu zehatz mehatz jakingo ea zenbat salduko ditugun, izan ere, ez dakigu salmenta kopurua zenbatekoa izango den.

NOLA MURRIZTU GURE ENPRESAREN KOSTUAK:

Enpresa guztiek bezala, kostuak murrizten saiatuko gara eta gure kostuak murrizteko teknologia berrietan inbertitzea pentsatu dugu.

Teknologia berriek eraginkortasuna hobetzen, produktibitatea handitzen eta kostuak murrizten laguntzen dute. Hasieran eguzki plakak egiteko lehengaiak erosi beharko ditugu eta aurreraxeago gure teknika berritzaileekin lehengai horiei probetxu handiagoa ateratzeko saiatuko gara beste produktu batzuk egiteko edo gure produktua hobetzen saiatzeko. Hau denborarekin hobetzen joango garen zerbait izango da, frohgan egiten ditugun bitartean.